

Bizkaiko Foru Aldundiaren 24/2020 FORU DEKRETUA, martxoaren 31koa, gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza- zentroetarako zein eguneko zentroetarako sarbidea arautzen duena.

(2020ko ekainaren 1eko BAO)

Gaixotasun mentala duten pertsonen arreta egitea eta haien autonomia sustatzea da Bizkaiko Foru Aldundiaren lehentasuneko jardun-lerroetako bat, desgaitasuna duten pertsonen eta haien senideei laguntzeko Partaidetzarako eta Bizi-kalitaterako Ereduarekin bat.

Eredu horren arabera, egoitza-arretaren zein eguneko arretaren arloetan erantzukizun publikoa duten gizarte-zerbitzuen sistemaren prestazioak eta baliabideak ere gaixotasun mentala duten pertsonen erantzuteko sistemaren parte dira, eta euskarri zein laguntza dira haien autonomia pertsonala, bizi-kalitatea eta komunitateko parte-hartzea bermatzeko, haien isolamendua eta estigma soziala gainditzeko eta haien eskubideen erabileran nahiz bizitza-proiektuaren garapenean aurrera egiteko, betiere osasun-sistemarekin batera koordinaturik.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 46.2 artikulua gaixotasun mentala duten pertsonen taldea jasotzen du, beren-beregi, bereziki arreta soziosanitariorako beharrezkoak diren taldeen artean.

Bai Eusko Jaurlaritzak eta bai foru-erakundeak jabetuta daude sektore arteko zein erakunde arteko mekanismoak sendotzearen garrantziaz, eta, ondorioz, azken hamarkadetan lanean aritu dira Euskadiko arreta soziosanitariora garatzeko lankidetzak hitzarmenak garatzen. Ildo horretan, 2019. urtean, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko hitzarmen bat sinatu da, xede hau duena: lankidetzan aritzea prestazio sanitarioa barne hartzen duten gizarte-zerbitzuak garatzeko osasun mentaleko arazoak dituzten (bereziki, gaixotasun mental larria eta kronikoa dutenen kasuan) eta edozein baldintza edo titulu juridiko delata Aldundiaren pean dauden pertsonen arreta ematen dieten gizarte-zerbitzuetako zentron sistemari, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen zerbitzu eta prestazioen zorroaren esparruan (22. artikulua) eta hura garatzen 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

Hitzarmen horren hiru garren klausulak ezartzen duenez, zentroetara sartzeko beharrezkoa izango da gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zerbitzuetara eta eguneko zentroetara sartzeko sistema arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren araudian ezarritakoa betetzea.

Hortaz, xedatutakoa betetzeko, beharrezkotzat jotzen da halako zentroetarako sarbidea arautzea printzipio hauekin bat: integrazioa eta gizarte-inklusioa, normalizazioa, indibidualizazioa, autonomia eta parte-hartzea.

Sarean garatutako baterako erantzun bat emateko, orobat ezinbestekoa da gizarte-zerbitzuen esparruaren eta osasun-esparruaren arteko koordinazioa bermatzea.

Foru-dekretu hau bat dator erregulazio onaren printzipioekin. Printzipio horiek Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da). Era berean, dekretu honetan, genero-ikuspegia jaso da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean adierazten den bezala. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru-dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita. Ildo horretan, tramitazioan, foru-dekretu horren 2. Artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari

buruzkoa.

Aurrekoa dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17. eta 64.3 artikuluek emandako ahalmenak erabiliz, Gizarte Ekintza Saileko foru--diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2020(e)ko martxoaren 31(e)ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua *Xedea.*

Foru-dekretu honen xedea Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden eta gaixotasun mentala duten pertsonentzat diren egoitza-zentroetara zein eguneko zentroetara sartzeko sistema arautzea.

II. KAPITULUA GAI XOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZA- ZENTROAK

2. artikulua *Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza- zentroak: defini- zioa, izaera eta xedea.*

1 Halako zentro edo zerbitzuek izaera soziosanitarioa dute, eta, haien bidez, arreta ematen zaie gaixotasun mental kronikoa duten pertsonen, haien gaitasunak eta trebetasunak — pertsonalak zein harreman-arlokoak— hobetzeko prestazioen bidez, helburua baita haien garapen pertsonala, integrazioa eta inguruneko parte-hartzea sustatzea eta oro har haien bizi-kalitatea hobetzea.

Zerbitzuok aldi baterakoak, egonaldi luzekoak edo egonaldi iraunkorrekoak izan daitezke.

2 Helburu hauek dituzte:

- a) Erabiltzaileen autonomia pertsonala mantentzea eta, ahal den neurrian, sustatzea autonomia pertsonala garatzen dela eta ez dela galtzen.
- b) Haien garapen pertsonala, gaitasunak, trebetasunak eta esperientziak bultzatzea.
- c) Aukerak eskaintzea integratu daitezen, komunitatean parte har dezaten eta komunitatearen zerbitzuak erabil ditzaten, inguruneko jarduera kultural eta sozialetan eta asialdikoetan parte hartuz.
- d) Laguntzako familia eta gizarte-sareak mantentzea eta sendotzea sustatzea.
- e) Haien segurtasun-sentimendua sustatzea.

3. artikulua *Zerbitzu-motak.*

Egoitza-zerbitzuetan, bi mota daude:

a) Laguntzak dituzten etxebizitzak. Halakoetan arreta ematen zaien pertsonen ez dute behar etengabeko gainbegiratzerik; inklusio-prozesu batean daude, eta, gizarteeta lan-inklusiara eta bizimodu normalizatura itzultzerako bideratutako ibilbide pertsonalizatu baten esparruan, zerbitzuetik kanpoko prestakuntzako eta garapen pertsonaleko jardueretan parte hartzen dute, egunean zehar.

Zerbitzuotan laguntzaileak daude, erabiltzaileak han dauden orduetan. Adierazitakoa gorabehera, laguntza-zerbitzu hori ken daiteke, erabiltzaileen beharizan-profilaren arabera.

b) Egoitza-zentroak. Halakoetan arreta ematen zaien pertsonen etengabeko gainbegiratzea eta/edo laguntza behar dute eguneroko bizitzako jarduerak egiteko. zentrook laguntzaileak dituzte, uneoro.

4. artikulua *Zerbitzua ematea.*

1 Testu arauemaile honen bidez arautu nahi den zerbitzua gaixotasun mentalari buruz indarrean dagoen araudian eta beste arau hauetan xedatutakoarekin bat emango da: Gizarte

Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, lege horiek garatzen dituen araudia, foru-dekretu hau eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

2. Egoitza-zentroan zerbitzu hauek eskainiko dira, gutxienez:

- a) Gizarte-zerbitzuen arlokoak:
 - 1.) Informazioa.
 - 2.) Jarraipen-ebaluazioa.
 - 3.) Bitartekaritza bitartekotza.
 - 4.) Arreta pertsonala.
 - 5.) Gizarteeta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: Estimulazio eta birgaitzearen arloko esku-hartzea; okupazionala; hezkuntza arlokoa; psikosoziala (bereziki, emozioei eustera eta arriskua murriztera bideratutako esku-hartzeak; funtzio psikoafektiboetan esku hartzea).
 - 6.) Akonpainamendu soziala.
- b) Osagarriak: Mantenua. Garbitegia. Garbitasuna Segurtasuna.
- c) Enplegu arlokoak: lan-eremuarekin eta prestakuntzarekin loturiko prestazioak, pertsonaren garapen integralerako beharrezkoak.
- d) Osasun arlokoak: Egoitza-zentroen kasuan: erizaintzako arreta, arreta medikoa; bereziki, arreta psikiatrikoa

5. artikulua *Erabiltzailea.*

Eskaera aurkezteko unean betekizun guztiak betetzen dituzten pertsonak izan daitezke eguneko zentroko erabiltzaile. Hona betekizunak:

a) 18 eta 64 urte bitarteko adina izatea. Salbuespen gisa, adin txikiagokoak ere sartu ahal izango dira egoitza-zentro batera:

- 1.) Haien beharrezanek edo gizartezein familia-egoeraren larritasunak hala egitea gomendatzen dutenean;
 - 2.) Babesgabetasun-arrisku larriko egoeretan, baldin eta halako egoerez beren-beregi arduratzen diren babes-baliabideek ezin dutenean arreta egokia bermatu.
 - b) Gaixotasun mental kronikoaren edo nahasmendu mental larri eta luzearen diagnostikoa edukitzea, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emana, eta gaixotasun horren ondoriozko mendetasun-egoeraren aitortpena, Gizarte Ekintza Saileko Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuak baloratua (I. gradua, gutxienez). Dena den, kontuan hartuta zerbitzu-mota zein laguntza duten etxebizitzaren egonaldi luzeko erabiltzaileen profila, zerbitzuotara sartzeko ez da beharrezkoa izango I. graduako gutxieneko balorazioa izatea, baizik eta % 33ko desgaitasuna izatea. Edozelan ere, eskatzaile guztiek mendetasun-balorazioa izan beharko dute.
 - c) Laguntza behar izatea: aldiari aldikoa, mugatua, luzarokoa edo orokorra.
 - d) Psikopatologia-egoera egonkortu batean egotea eta ez egotea krisi psikiatriko batean.
 - e) Behar ez izatea baliabidearen aukera eta dotazioetatik kanpo dagoen osasun mentalaren arloko laguntza espezializatu eta iraunkorrik.
 - f) Erabiltzaileek uko ez egitea bere osasun fisiko zein mentaleko arazoei aurre egiteko tratamenduari.
 - g) Zentroaren funtzionamendua edo bertako bizitza eragotz dezaketen portaera-nahasmendu larririk ez izatea, hau da, gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentroen berezko baliabideen bidez kontrolatu ezin den nahasmendurik.
- Arestian aipatutako betekizunak eskaera aurkeztean bete behar dira, eta zentroan emandako egonaldi osoan zehar mantendu.

III. KAPITULUA **GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTROAK**

6. artikulua *Gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzako eguneko zentroak: definizioa, izaera eta xedea.*

Aldi baterako edo modu iraunkorrean, eguneko zentroaren zerbitzuak banakako arreta integrala eskaintzen die gaixotasun mental kronikoa dutenei, egunez, haien autonomia pertsonala hobetu edo mantentzeko, dituzten muga funtzionalak konpentsatzeko eta haien ohiko zaintzaileei laguntza emateko. Horretarako, prebentzio-, gaikuntza eta laguntza-arloetako zenbait prestazio

emango dira, halako pertsonak gaitzera eta autonomia pertsonalerako eta komunitatean parte hartzeko eskumenak garatzera bideratuak.

7. artikulua *Zerbitzua ematea.*

1 Eguneko zentroaren zerbitzua honako manu hauetan xedatutakoarekin bat emango da: eguneko zentroen arloan indarrean dagoen araudia, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Emakume eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, lege horiek garatzen dituen araudia, foru-dekretu hau eta aplikatu beharreko gainerako araudia.

2 Eguneko zentroan, 185/2015 Dekretuan jasotako prestazioak emango dira, gutxienez (2.2.1 fitxa).

a) Gizarte-zerbitzuen arlokoak:

1.) Jarraipen-ebaluazioa.

2.) Bitartekaritza bitartekotza. Arreta pertsonala.

3.) Gizarteeta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea:

a) Estimulazio eta birgaitzearen arloko esku-hartzea: funtzio kognitiboak (psikoes-timulazioa, oroimenaren entrenamendua, errealtaterako orientazioa) eta trebe-tasunen garapena (eguneroko bizitzako jarduerak egiteko gaitasunak estimulatzeko jarduera eta ariketa errazak.

b) Hezkuntzaren arloko esku-hartzea: aisialdia eta hezkuntzaeta kultura-jarduerak.

c) Esku-hartze psikosoziala: esku-hartzea funtzio psikoafektiboetan, eta, beharrezkoa bada, jokabidearen nahasmenduak konpontzeko laguntza.

4.) Akonpainamendu soziala.

5.) Garraio egokitua, erabiltzaileen mugikortasun-zailtasunengatik eta/edo garraio publikoa erabiltzaientzako iristeko zailtasunengatik beharrezkoa denean.

b) Osagarriak: Garbitasuna. Mantenua, hala badagokio.

c) Osasun arlokoak: Erabiltzaileen osasun-premien prebalentzia eta intentsitatea kontuan hartuta, zerbitzu honek osasun-sistemaren berezko prestazioak eskaini ahal izango ditu.

8. artikulua *Erabiltzailea .*

Eskaera aurkezteko unean betekizun guztiak betetzen dituzten pertsonak izan daitezke eguneko zentroko erabiltzaile. Hona betekizunak:

a) 18 eta 64 urte bitarteko adina izatea.

b) Gaixotasun mental kronikoaren edo nahasmendu mental larri eta luzearen diagnostikoa edukitzea, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emana, eta gaixotasun edo nahasmendu horren ondoriozko mendetasun-egoeraren aitortpena, Gizarte Ekintza Saileko Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuak baloratua (I. gradua, gutxienez).

c) Intentsitate ertain edo handiko laguntza behar izatea eguneroko bizitzako jarduerak egiteko.

d) Gizarte-zerbitzuen sareko aukera eta dotazioetatik kanpo dagoen osasun-laguntza espezializatuturik eta/edo iraunkorrik behar ez izatea.

e) Erabiltzaileek uko ez egitea bere osasun fisiko zein mentaleko arazoei aurre egiteko tratamenduari.

f) Ez egotea ohean sartuta, edo antzeko egoera batean.

g) Ez izatea jokabidearen nahasmendurik, halako nahasmenduak bizikidetzara erabat asaldatzeko, etengabeko gainbegiratzea eskatzeko eta zentroaren arreta-aukerak gainditzeko bezain larriak eta sarriak direnean.

Arestian aipatutako betekizunak eskaera aurkeztean bete behar dira, eta zentroan emandako egonaldi osoan zehar mantendu.

IV. KAPITULUA

GAI XOTASUN MENTALA DUTENAK EGOITZA- ZENTROAN EDO EGUNEKO ZENTROAN SARTZEKO ADMINISTRAZIO- PROZEDURA

9. artikulua *Prozeduraren hasiera.*

1 Prozedura Gizarte Ekintza Saileko Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuak egindako arreta eskaintzeko banakako programaren bidez hasiko da, betiere programa formalizatzean interesdunak

espresuki adierazten badu gaixotasun mentala dutenentzako egoitza-zentro edo eguneko zentro baterako eskaera aurkeztu nahi duela eta zerbitzu horrek berretsi badu.

2 Salbuespen-kasuetan, interesdunak berariazko eredu normalizatua bete beharko du; Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa aurkituko du eredia.

10. artikulua *Prozeduraren instrukzioa.*

1 Eskaera egiaztatzea eta zuzentzea. Espedientea izapidetzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da, baldin eta Gizarte Ekintza Sailak lehendik ez badauka:

a) Eskatzailearen eta, hala badagokio, legezko ordezkariaren NANaren edo, halakorik ezean, nortasuna egiaztatzeko beste edozein agiriren fotokopia.

b) Bizikidetzaren unitateko kide guztien NANaren fotokopia edo, halakorik ezean, haien nortasuna egiaztatzeko beste edozein agirirena.

c) Gaitasuna judizialki aldatu bada, gaitasun horren egiaztagiria.

d) Desgaitasun-graduaren egiaztagiriaren kopia, non gaixotasun mental larriaren diagnostika eta mendekotasun-egoera egiaztatzen duen agiria jasotzen baitira.

e) Eskatzailearen errolda-agiri edo egiaztagiri eguneratua. Geroagoko izapideak arinago egin daitezke, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonak egiaztagirian jasotzea gomendatzen da.

f) Ordainketa bankuan helbideratzeko agiria, bankuak zigilatua. Zerbitzuaren jasotzaileak prezio publikoa ordaintzeko erabiltzen den kontu korrantearen titularra izan behar du.

g) Eskaera izapidetzeko beharrezko den beste edozein agiri.

2 Betiere, errekerimenduak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ezarritakoarekin bat egingo dira, hamar (10) eguneko epean akatsak zuzentzeko eta aginduzkoak diren agiriak aurkezteko. Horrez gainera, interesdunari ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

3 Eskaera aurreko paragrafoan adierazitako moduan egiaztatu ondoren, eskumena duen administrazio-unitateko teknikariek eskatzailearen osasun-egoera psikologikoa, soziala, familiarra, ekonomikoa eta ondare-arlokoa ebaluatuko du, eta dagokion ebazpen-proposamena egingo:

a) Proposamena aldekoa bada, Gizarte Ekintzako diputatuari aurkeztuko zaio, azter dezan.

b) Sarbidea ukatuz gero, ebazpen-proposamena aurkeztu aurretik, aginduzkoa den entzunaldiaren izapidea jakinaraziko zaio eskatzaileari edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariari.

11. artikulua *Ebazpena.*

1 Ebazpen-proposamena ikusita, Gizarte Ekintzako foru-diputatuak prozedura ebazteko foru-agindua emango du, eta hura jakinaraziko, jar daitezkeen errekurtsioak zehazturik.

2 Foru-aginduak alderdi hauek ebatziko ditu:

a) Gaixotasun mentala dutenentzako egoitza-zentroko edo eguneko zentroko plaza baten onuradun-izaera aitortu edo ukatuko dio eskatzaileari.

b) Ebazpenak, onuradun-izaera aitortzeko bada, adieraziko du interesduna plaza esleitzeko prozesuan geratu dela. Hala ere, onuradun-izaeraren aitortpenak ez du berez ekarriko egoitza-zentroan edo eguneko zentroan benetan sartzea, horretarako ezinbestekoa izango baita plaza hutsak egotea.

c) Zerbitzuari loturiko prestazioaren zenbatekoa. Plaza publikoa noiz esleitzeko dioten zain dagoen bitartean, interesdunak zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango du, hala badagokio, egoitza-zentro edo eguneko zentro batean egindako egonaldi pribatua ordaintzeko, betiere prestazio horri buruzko araudi espezifikoan ezarritako moduak, epeak eta baldintzak betez gero.

d) Ebazpenak, ukatzekoa bada, adieraziko du zergatik ukatu den eskaera.

12. artikulua *Onuradun-izaera ukatzeko edo galtzeko arrazoiak.*

Honako arrazoi hauek direla-eta ukatuko da gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentro batean edo eguneko zentro batean sartzeko eskaera:

1 Foru-dekretu honen 5. eta 8. artikuluetan ezarritako baldintzetako bat ez betetzea.

2 Sartzeko adostasunik eza edo, hala dagokionean, nahitaezko baimenik eza.

13. artikulua *Atzera- egitea.*

Prozeduraren edozein unetan, ebazpena eman baino lehen, eskatzaileak edo haren legezko edo borondatezko ordezkariak atzera egin ahal izango du zentro batean sartzeko eskaeran. Horretarako, atzera egiteko asmoa jasota geratzea ahalbidetzen duen edozein bitarteko erabili ahal izango du, are uko egiteko borondatea adierazi zaion eta izapideen ardura duen funtzionarioak sinatutako eginbidearen bitartez (atzera egiteko nahia bulegora joanda, edo bide telematikoz edo telefonoz adierazita egin daiteke). Hala ere, eskaeran atzera egiteko borondatea telefonoz adierazten denean, funtzionarioak behar diren egiaztapenak egin beharko ditu bide hori erabiltzea adierazitako asmoaren benetakotasuna berresteko, eta inguruabar hori jaso beharko du.

14. artikulua *Uko egitea.*

Erabiltzaileak uko egin diezaiokere bere eskubideari, edo haren legezko ordezkariak edo borondatezkoak. Horretarako, uko egiteko borondatea jasota geratzea ahalbidetzen duen edozein bitarteko erabili ahal izango du, uko egiteko borondatea adierazi zaion funtzionarioak sinatutako eginbidea barne (uko egiteko nahia bulegora joanez edo telefonoz adieraz daiteke). Hala ere, uko egiteko borondatea telefonoz adierazten denean, funtzionarioak behar diren egiaztapenak egin beharko ditu bide hori erabiltzea adierazitako asmoaren benetakotasuna berresteko, eta inguruabar hori jaso beharko du.

Halaber, interesdunak dagokion eskubideari isilbidez uko egiten diola ulertuko da bere egintza eta jokabideetatik argi eta zalantzarik gabe ondorioztatzen bada asmo hori duela. Isilbidezko uko-egite hori zentroko arduradunek sinatutako idazki batean edo funtzionario batek emandako eginbide batean jaso beharko da. Dokumentu horretan berariaz jaso beharko dira uko egiteko asmoa erakusten duten interesdunaren edo haren legezko ordezkariaren egiaztak edo jokabideak.

Artikulu honetan jasotako kasuetan, interesdunak ezin izango du beste eskaera bat aurkeztu harik eta 6 hilabete igaro arte, non eta haren inguruabarrak ez diren aldatu eta hori ez duen egiaztatzen agiri bidez.

V. KAPITULUA PLAZEN KUDEAKETA

15. artikulua *Onuradunei plaza esleitzeko prozesua.*

Plaza esleitzeko prozesuaren bidez, onuradunaren izaera aitortu zaien pertsona guztien artean plaza esleitzeko lehentasun-hurrenkera ezartzen da.

16. artikulua *Lehentasun- irizpideak.*

Lehentasun-irizpide hauek erabiliko dira gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitzaz-erbitzuan edo eguneko zentroan plaza esleitzeko prozesuan:

a) Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroetan arreta jasotzeko beharrianaren gizarte-adierazlean lortutako puntuazioa.

b) Egoitza-zentroa edo eguneko zentroa baliabiderik egokiena dela onartzen duen foru-agindua emandako data; edo, eskaera normalizatuaren kasuan, eskaerak Gizarte Ekintza Saileko dokumentuen sarrera-erregistroan duen sarrera-data eta -zenbakia.

Beti ere, kasua kudeatzeko metodologia erabiliko da eskatzaileen profilak ahalik ta gehien egoki daitezen eskura dauden baliabideetara.

17. artikulua *Plazak esleitzea.*

1 Zentro batean plaza bat libre geratzen denean, zentroaren erakunde kudeatzaileak plazari eta haren ezaugarriei buruzko informazioa eman beharko dio eskumena duen administrazio-unitateari, zentroko erabiltzaileak baja hartu duen egunean bertan edo erabiltzaileak zentroan baja hartu ondoko 3 egun naturalen barruan.

Plaza Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatuak emandako foru-agindu bidez esleituko zaio plaza

noiz esleituko zaion zain dagoen pertsonari, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, kontuan hartuta plazaren ezaugarriak eta hura betetzeko pertsona egokienaren profila.

2 Esleitu aurretik, plaza telefonoz eskainiko da.

3 Plazari uko egiteak berarekin ekarriko du, beti, egoitza-zerbitzuari lotutako prestazioa galtzea, baldin eta eskatzailea jasotzen ari bazen prestazioaren araudian ezarritako moduekin eta baldintzekin bat.

Plazari uko egiteak ez du ekarriko zerbitzuari lotutako prestazioa galtzea, baldin eta eskatzaileak betetzen baditu prestazioaren araudian ezarritako baldintzak.

4 Plaza esleitzeko eta zentroan sartzeko foru-aginduan hauek adierazi beharko dira:

- a) Onuraduna sartuko den zentroaren izena
- b) Ordaindu beharreko prezio publikoa, hura arautzen duen foru-dekretuan xedatutakoarekin bat.
- c) Onuraduna zentroan sartu behar den eguna, zeinetik aurrera hasten baita prezio publiko bidez plazaren kostua finantzatzen parte hartzeko betebeharra.
- d) Zer ondorio izango dituen ezarritako egunean zentroan ez sartzek bidezko arrazoirik gabe.
- e) Zentrora egokitzeko aldiaren iraupena, halakorik badago, eta hartara ez egokitzeak zer ondorio izango dituen.
- f) Egoitza-zentroan edo eguneko zentroan sartu aurretik jasotzen ziren eta sarrerarekin bateraezinak diren prestazioen azkentzea, edo sartu aurretik jasotzen ziren eta sarrerarekin bateragarriak diren prestazioen aldaketa.

18. artikulua *Zentroan sartzea.*

Onuradun bati plaza esleitu ondoren, aurreko artikuluan jasotako foru-aginduaren bidez adierazitako egunean sartu beharko du zentroan.

Interesduna ezarritako egunean sartzeko ez bada eta horren arrazoia ezin bazaio egotzi Foru Administrazioari, ulertuko da pertsona horrek uko egiten diola plaza baten onuraduna izateari eta esleitutako zentroan sartzeko eskubideari, eta, ondorioz, hari esleitu zaion plaza berehala esleitu zaio plaza esleitzeko prozesuan sartutako beste pertsona bati.

Interesduna ezarritako egunean sartzeko ez bada eta horren arrazoia edo arrazoiak justifikaturik badaude, aurreko paragrafoan aipatutako uko egitea ezin izango da egindakotzat jo; beraz, plaza librean plaza esleitzeko prozesuan dagoen beste pertsona bati esleitu bazaio, onuraduna plaza bat esleitzeko zain geratuko da berriro.

19. artikulua *Aurretiazko informazioa.*

Zentroan sartu aurretik edo sartzeko unean bertan, zentroko zuzendaritzak zentroko barne-araubidearen araudiari eta bizikidetzara-arauei buruzko informazioa emango dio erabiltzaileari edo haren legezko edo borondatezko ordezkariari. Eta, egintza berean, informazioa emango dio zerbitzu sozio-sanitarioen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharrei buruz, bai eta aplikatzekoa den araudi autonomiko edo foralen gaineko beste edozein informazio eta organo eskudunek emaniko jarraibide eta ildoak edo beste edozein motatako argibide jakinarazi ere.

20. artikulua *Egokitzeko aldia.*

Sartu eta hurrengo lehen hiru hilabeteetan, zentroaren ezaugarrietara eta funtzionamendura egokitzeko eta erabiltzaile guztientzat laguntza egokia eta ongizatea bermatzen duten gutxieneko bizikidetzara-ohituretara egokitzeko epe bat beteko du erabiltzaileak.

Egokitzeko aldia beren-beregi jasoko da zentroak sartu berri den erabiltzailearentzat egindako arreta indibidualizatua emateko planaren barruan.

Arreta indibidualizatua emateko planaren bidez gauzatutako laguntza tekniko gorabehera zentroko langileak ohartzen badira erabiltzaile berria ez dela ondo egokitu zentrora, zentroko zuzendariak horren berri emango die erabiltzaileari eta/edo haren legezko edo borondatezko ordezkariari eta Gizarte Ekintza Saileko administrazio-unitate eskudunari. Espedientea aztertu ondoren, administrazio-unitate horrek egokien iruditzen zaion proposamena egingo du, eta, era-biltzailea bere ingurune sozialera itzultzen bada, beste baliabide sozial batzuen laguntza jasotzeko aukeraren berri emango zaio.

21. artikulua *Plaza gordetzea*

Erabiltzaileek egoitzatik edo eguneko zentrotik kanpo dauden aldietan plaza gorde diezaieten eskubidea izango dute, baldintza hauek betez gero:

a) Borondatezko absentiaren kasuan, betiere absentzia-aldia hirurogei (60) egun baino gehiago ez bada urte naturalean, eskumena duen administrazio-unitateak ohiz kanpoko inguruabarrak ikusten dituenean izan ezik.

b) Derrigortutako absentzia, berriz, medikuak aginduta edo ospitaleratzeagatik gertatuko da. Halakoetan, arrazoiak dirauten bitartean gordeko da plaza, salbu eta epea kontuan hartuta eskubidea azkentzeko eta zerbitzuan baja emateko arrazoi badira.

22. artikulua *Prezio publikoa ordaindu beharra*

Erabiltzaileek dagokion prezio publikoa ordaindu beharko dute, hura arautzen duen foru-araudi espezifikoan ezarritako baldintzetan.

Betebehar hau ez betetzeak eskubidea azkentzea edo zerbitzuan baja ematea ekar dezake.

VI. KAPITULUA

GAI XOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONAK BESTE EGOITZA- ZENTRO EDO EGUNEKO ZENTRO BATERA LEKUALDATZEA

23. artikulua *Onuradunak.*

Gaixotasun mentala dutenentzako egoitza-zentro batean edo eguneko zentro batean dagoen edozein pertsonak eskatu ahal izango du lekualdatzeko.

24. artikulua *Lekualdatzearen arrazoiak.*

Lekualdatzeak egiteko era:

a) Ofizioz, zentroko zuzendariaren aurretiko eskaera motibatua bidez.

b) Onuradunak edo haren legezko edo borondatezko ordezkariak eskatuta.

Erabiltzaileak eskatutako lekualdatzeen kasuan, ezin izango dira baimendu, harik eta erabiltzailea egoitza-zentroan edo eguneko zentroan sartu zenetik hiru (3) hilabete igaro arte, behar bezala justifikatutako aparteko kasuetan izan ezik.

Erabiltzailea egoitza-zentro edo eguneko zentro batetik lekualdatua izan bada berak eskatuta, orduan, ez da baimenduko beste lekualdatze bat harik eta zentroan sartu zenetik urtebete (1) igaro arte, behar bezala justifikatutako aparteko kasuetan izan ezik.

Lekualdatzea kasu hauetan ukatu ahal izango da: erabiltzaileak dekretu honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu edo lekualdaketa komenigarria ez bada behar bezala justifikatutako arrazoiaren ondorioz.

25. artikulua *Lekualdatzeko eskaerak.*

Lekualdatzeko eskaera idatziz aurkeztu behar du eskatzaileak edo haren egezko edo borondatezko ordezkariak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko agirien sarrera-erregistroan (Ugaskobidea, 3, 2. solairua. Bilbo, 48014). Horrez gainera, eskaerak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako bideetariko bat erabiliz ere bideratu ahal izango dira.

26. artikulua *Lekualdatzeko prozeduraren instrukzioa.*

Lekualdatzea ofizioz egiten bada, inguruabar hori eta lekualdatzeko arrazoiak jakinarazi beharko zaizkio onuradunari edo haren legezko edo borondatezko ordezkariari, eta hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio alegazioak aurkezteko, aparteko arrazoiengatik lekualdatzea

presaz egiteko proposamena egitea komeni denean izan ezik. Kasu horretan, berehala jakinaraziko zaio inguruabar hori erabiltzaileari edo haren legezko edo borondatezko ordezkariari.

Lekualdatzea interesdunak eskatuta egiten bada, erabiltzaileak dekretu honetan lekualdatzeko ezartzen diren baldintzak betetzen dituen egiaztatuko da, eta lekualdatzea onartzeko edo ukatzeko proposamena aurkeztuko zaio Gizarte Ekintzako foru-diputatuari.

27. artikulua *Lekualdatzeko prozeduraren ebazpena.*

Prozeduraren instrukzioa egin ondoren, Gizarte Ekintzako foru-diputatuak lekualdatzea onartzea edo ukatzea ebazten duen foru-agindua emango du.

Erabiltzaileak zentro jakin batera aldatzeko eskatzen badu, baimena eman daiteke, nahiz eta ematen den unean zentro horretan plaza liberrik egon ez. Kasu horretan, eskatzailea plaza huts bat noiz sortuko zain geratuko da, betiere foru-dekretu honen 16. artikuluan ezarritako lehenetasun-irizpideekin bat eta plazaren ezaugarriak eta erabiltzailearen profila kontuan hartuta.

VII. KAPITULUA **ESKUBIDEA AZKENTZEA ETA BAJA EMATEA GAIXOTASUN MENTALA DUTENENTZAKO EGOITZA- ZERBITZUAN EDO EGUNEKO ZENTROAN**

28. artikulua *Eskubidea azkentzea eta baja ematea.*

Plaza izateko eskubidea azkendu ahal izango da, eta zerbitzuan baja eman, honako arrazoi hauengatik:

- a) Heriotza.
- b) Uko egitea, berariaz edo isilbidez.
- c) Arrazoi hauetakoren bat gertatzea:
 - 1.) Beharrianak edo laguntza-intentsitatea handitzea, eta esleitutako arreta-baliabideak horri erantzun ezin izatea.
 - 2.) Erabiltzaileak gaixotasun infekzio-kutsakorren bat izatea, gaixotasunaren kutsatze-bidea kontuan hartuta egoitza-zentroan edo eguneko artatu daitekeenean izan ezik.
 - 3.) Erabiltzaileak zentroaren ingurunearen, beste pertsona batzuekiko harremanen edo bes-telako egoeren eraginez, ondorio antiterapeutikoak jasateko arriskua egotea.
 - 4.) Zentroaren funtzionamendua edo bertako bizitza eragotz dezaketen portaera-nahasmendu larriak izatea, gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentroen berezko baliabideen bidez kontrolatu ezin direnak.
- d) Modu ofizialean onartutako betebeharrak eta zentroaren arauak behin eta berriro haustea.
- e) Zentrotik kanpo bere borondatez 21. artikuluan ezarritako aldia baino luzeago egotea, bidezko arrazoirik gabe.
- f) Derrigorrezko absentzia sei hilabetetik gorakoa izatea.

Artikulu honen a) zerbakian jasotako kasuan, erabiltzailea hil delako berriak espediente berehala ixtea eta artxibatzea ekarriko du.

b) zerbakian jasotako kasuan, berriz, foru-agindu bidez onartuko da uko egitea; foru-agindu horrek, gainera, eskubidearen azkentzea eta egun jakin batetik aurrerako baja-egoera adieraziko ditu eta espediente ixteko eta artxibatzeko aginduko du.

Azkenik, c), d), e) eta f) zerbakietan adierazitako kasuei dagokienez, baja emateko administrazio-prozedura ofizioz hasi ahal izango da; prozedura hori hurrengo artikuluan arautzen da.

29. artikulua *Zerbitzuan baja emateko prozedura.*

Prozedura hasi ondoren, betebeharrak ez direla bete edo eskubidea azkentzeko eta baja emateko egon daitezkeen arrazoiak agerian uzten dituzten txostenak oinarritzat hartuta, arrazoi edo ez-betetze horiek jakinaraziko zaizkio erabiltzaileari edo haren legezko edo borondatezko ordezkariari, eta hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio alegazioak egiteko.

Aurreko epea igarota, Gizarte Ekintza Saileko diputatuak foru-agindua emango du, erabiltzaileari plaza bat izaten jarraitzeko eskubidea azkendu zaiola deklaratzeko eta zerbitzuan baja emateko, edo, hala badagokio, plaza izateko eskubidea eta zerbitzuko alta-egoera berresteko.

VIII. KAPITULUA PARTAIDETZA- ORGANOA

30. artikulua *Osasun mentaleko zentroen batzorde iraunkorra.*

Foru-dekretu baten bidez, Gaixotasun Mentala duten Pertsonentzako Zentroen Batzorde Iraunkorra sortuko da, kide anitzeko organo aholku-emaile bat, partaidetza eta koordinazioa bideratzeko. Besteak beste, honako hauez osaturik egongo da: osasun mentaleko gizarte-zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona eta/edo familiak ordezkatzeko entitateak, batetik, eta, bestetik, erantzukizun publikoko zerbitzuen kudeaketan parte hartzen duten entitateak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Gizarte- bazterketako egoeran dauden gaixo mentalentzako zentroetan sartzea eta haiekin esku hartzea

Gizarte-bazterketako egoeran dauden gaixo mental larri eta kronikoei arreta emateko eguneko zentroetan eta egoitza-zentroetan sartzeko sistemak eta pertsona horiekin egin beharreko esku-hartzeak bete beharrekoa izango dute Gizarte-inklusioren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duen 2019ko maiatzaren 21eko 59/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa, edo aurrekoa ordeztu, aldatu edo garatzen duen eta aplikatu beharrekoa den beste edozeinetan ezarritakoa.

AZKEN XEDAPENA.

XEDAPEN XEDAPEN BAKARRA

Indarrean jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.



Dokumentu honen helburua da bakarrik informazioa ematea, ez du inolako balio juridikorik.